

BEZEROA: Bezeroekin harremanak

Gure bezeroak ekitaldi eta festa antolatzaileak izango dira. Beraieri gure produktua salduko diegu, lehenago pertsonalizatzeko aukera emanez. Gero beraiek izango dira publikoari salduko dietenak.

Gure helburua publikoari gure produktua gustatzea denez, marketing kanpainen bidez eta guztiz pertsonalizatutako diseinuen bitartez, beraien arreta lortuko dugu eta gure produktua ezagutzera emango dugu, horrela publikoari gertutasunez iritsiko gara eta gure produktua eskatua izango da. Antolatzaileek hori ikusita gure produktua askoz gehiago erosiko dute eta geroz eta bezero gehiago izango ditugu.

Gurekin harremanetan jartzeko bi modu edukiko dituzte; alde batetik web orritik beraien eskaria egiteko aukera izango dute, eta bestetik gurekin harreman estuago bat izan nahi badute telefono zenbakia eta emaila eskuragarri izango dute. Horrela ziurtatuko dugu adin guztietako antolatzaileek izango duela gurekin harremanetan jartzeko aukera.